

Kirolaz gozaten, presiorik gabe

Kardala, Eibar edo K3 bezalako triatloi taldeetan ibili da Nagore Basterra eta Ondarroako Koaxi Triatloi taldeko sortzaileetako bat da

Nagore Basterra Berridi



Hamahiru urte zituela hasi zen bizikletan eta igeriketan **Nagore Basterra Berridi** (Ondarroa, 1979) baina lesio bat tarteko utzi egin behar izan zuen denboraldi batez eta orduan, korrika egiten hasi zen. Batak bestea ekarri zuen eta Gerardo Sainzek, orduko Kardala elkarteko zuzendariak, animatuta bertan hasi zen.

11barri.eus/testu-bankua

EMAKUMEA ETA KIROLA: Biografiak

11barri
DISEINUA
KOPURUAK
EUSKARAZ



Hamasei urterekin Euskadiko txapeldunorde izan zen, triatloi olinpikoan eta Ermuan burutu zen Bizkaiko duatloi txapelketan txapeldun postua lortu zuen. Astero izaten zituen lehiaketak, bai Euskal Herrian eta baita Kantabrian ere. Bere emaitza onak ikusita, Kardalatik Eibar triatloi taldera joan zen eta handik K3ra, Bilboko nesken triatloi taldera. Eibar Triatloi Taldean hamasei urterekin hasi zen eta bertan ibili zen bi urtez. Bera zen emakume bakarra, izan ere, sasoi hartan murrizta zen lehiatzen zen neska kopurua. Faltan botatzen zituen entrenamenduetako lagunak baina egun, neska taldeak ikusten dituenean poz handia sentitzen du.

Egoera nabarmen aldatu da emakumea eta kirolari dagokionez, orain dela hogeita hamar urte, Basterra gaztea zenean ez zen ohikoa emakumeak kalean kirola egiten ikustea eta arraro begiratzen zioten sentsazioa izan du. Ez soilik kalean, medikuak ere bota zion behin: "Zertan ari zara horrenbeste kirol egiten? Helduko da momentu bat mutila emango duzula!". Zentzugabekeria hutsa iruditu zitzaion triatletari, bere lehentasuna inoiz ez baita izan bere gorputza gizarteak inposaturiko kanonetan sartzea, bere lehentasuna beti izan da gustuko zuen hori egitea, hau da, kirola egitea.

Emakume izate hutsagatik izan ditu pasadizo batzuk gizonezkoekin. Esaterako, behin exhibizionista bat atera zitzaion bidera bizikletan zihoala, eta gaizki pasatu zuen. Bertatik pasatu zen herritar bati laguntza eskatu behar izan zion herrira bueltatzeko, susto itzela baitzeukan barruan.

Eibartik K2 taldera pasa zen eta hemen beste bi urte egin zituen. Talde honetan Virginia Berasategi Luna bezalako triatletak zeuden eta honen aita zen entrenatzailea, Javier Berasategi, hain zuzen. Bera izan zen Nagore Basterrari taldeko partaide izateko gonbita luzatu ziona. Baina bi urte igaro ondoren, utzi egin zuen, ez zen bateragarria unibertsitateko ikasketekin, hiru orduko entrenamenduak eskatzen baitzioten.

Ondarroan triatloi talde baten beharra mahaigaineratu zuten arlo honetan lehiatzen zirenek, 2000. urtearen bueltan. Kardala Triatloi Taldea desagertuta zegoen eta herritik kanpoko taldeetan zeuden denak. Beraz, 5-6 lagun batu eta Koaxi Triatloi Taldearen proiektuari hasieran eman zioten Ondarroako triatletek, Nagore Basterra zen horietako bat. Ondarroan talde bat sortu eta herriko triatloia berreskuratzea helburu izanik, herriaren laguntzarekin lortu zuten. Herriari zabaldu eta gaur egun ere horretan dabil Koaxi Triatloi Taldea.

“Ondarroako triatloi taldea berreskuratu nahi genuen eta gero, herrira zabaldu. Herriaren laguntzarekin lortu genuen.”

Ikasketak, lana eta amatasuna tarteko, lehiatzeko helburua albo batera utzi zuen. Kirola egiten jarraitzen du, beti egin izan duen bezala, baina momentu honetan, presiorik gabe. Sasoi hartan bere burua asko presionatzen zuela iruditzen zitzaion, ondo pasatu eta kirolaz gozatu beharrean, sufritu egiten zuela. Beraz, helburua aldatu eta horretan dabil egun. Horrez gain, lana ere kirolarekin erabat lotuta dauka; kirola edo gorputzarekin, fisioterapeuta da eta. Beraz, ez du inoiz kirola albo batera utzi.

